EUSKAL ESANGIAK

Irabaziyak, ankak arin ditu.
Biatza ikusi, eta arra kontatu.
Mendiyak mendiz, eztira beartzen; bañan gizona gizonaz bai.
Obea da bat ona, bi charrak bañon.
Osasuna, munduko ondasuna.
Kulpa dun, lotsa dun.
Penaren karameloa, esperanza.
Tripak, mugieraiten ditu ankak.
Eche bi diran lekuban, ezta galduko.
Jostorratzak bañon luzeago beardu ariyak.
Artzeko poz, emateko otz.
Ezpañak bañon ortzak aurrerago.
Tripa utsak, entendimentu argiya.
Pasaitarrena, esan bañon len eranzun.
Etzan egun batean egiñ Erroma.
Urrutiko inchaurrak amalau, alderatu ta lau.
Batak eztuana, besteak beardu.
Iñork eztaki norengana bear litekean.
Gizon charraren andreak, izango ditu astean ostiral bi.
Pake charra oben da, gerra ona bañon.
Ezer eztan tokiyan atzaparrak garbi.
¿Zer da zartzea? bi aldiz aurtzea.
Gaiztoak naiduan arte, onaren biziya.
Gure echeak, aurretik ateak.
Enbidiosoa, bere etsai osoa.
Jaungoikoak berri on bana dezala.

Etsaiak esaten du, egintzak, egintzak; eta ondorean pagazak, pagazak.

Gogorrena alkate.

Aldeko arkumea, obea da urrutiko ardiya baño.

Zakurrak arriyari bezela nai diyo.

Itza partitu zanean, an zan.

Esan gabe iduki dana, esan liteke; bañan ez beiñ esana, iduki esan gabe.

Bere pekatuen ispilluba, lotsa.

Gero gauza onak.

Etzan arren burutik egiñ Erroma.

Eruak bat, eta berak zart.

Gezurrak alde laburrak ditu.

Aizea buruban, eta ibilli munduban.

Dudako gauza bada, isillik iduki.

Arditka, arditka, egiten da onzakoa.

Beste chakurrak zaunka egingo zion.

Otsoaren eskutik ere, mokadu bat atsegin da.

Nolako asiera alako akabera.

Utsaren urrengo persona.

Asko itzegiñ eta guchi esan.

Nolako biotza, alako arpegiya.

Guchiena dakienak, geiena dakiela uste.

Aur jaio, eta aur biurtu.

Loteriarik onena, lana.

Obea da guchi, eta ona, asko eta charra baño.

Lotsik ez, eta bearrik ez.

Urte joanak ongi daude.

Eztira astoarentzat egiñak, konpitiak.

Memoriya plakoa da batzuetan.

Galdubak, edozeñi miñ ematen diyo.

Era bat jan, eta era bat edan, Buranoko idiyarena.

Il ta gero, salda bero.

(Aurrandetuko da)

EUSKAL ESANGAIAK

(AURRANDEA)

Uste etzuan zakurrak, zaunka egin dio.

Jan ta lan.

Festak aurrea ederragoa du, atzea bañon.

Akabatu dira orren zer esanak.

Gauzak bi bider egin bear balira....

Illak ankak otzak.

Etorriko naiz kanpotik, non aterako zaitutan echetik.

Arbolik bajuenean, egurra egiten da.

Ezta azken gabeko gauzik.

Jokurako ateak, esperanzaz beteak.

Illa zulora, biziya mayera.

On egiña gaizki pagatu.

Ezta deskansurik, ezpada nekerik.

Zarra, bearrerako charra.

Kukubak oker jo diyo.

Ongi pentsatu, eranzun baño len.

Zartzian, zakuba atzian, eta Jaungoikoak lagun dekizula, atian sartzian.

Dabillen bideak, arrapatuko du.

Non da nere gogoa, an da nere zankoa.

Nork bere santubari erregutzen digo.

Beti zorrotzak, azeriyak ortzak.

Illari far, biziyari negar.

Norknai du jolasa, bizi danak lasa.

Zenbat ate, ainbeste maratilla.
Batzubek fama, eta besteak izana.
Zenbat irabazi, ainbeste gastatu.
Il bearrak, illeak zutitzen ditu.
On egiñaren sariya, esker charra.
Esku bat eman, eta biyak artu.
Eroen artean, tontoa alkate.
Denbora onean karameloak.
Eztul zarra, lagun charra.
Aurretik ongi itzegin, eta atzetik saldu.
Iltzean, ondutzen da persona.
Benta obea, gauza bañon.
Bilduen bañatzallea.
Ardita beti ardit.
Iltzen danak, akabatzen ditu emengo lanak.
Artzeko charra obea da, zor ona baño.
Illunpetako lana, argitako lotsa.
Entzun-gille gorra, buru gogorra.
Il gabe eztago, santu egiterik.
Itzak bideak egiten ditu.
Goseak ortzak, beti zorrotzak.
Bildu negarrez, gastatzeko farrez.
Zillarrezko abilidadea, eta urrezko tripa.
Basarri charrak, errota urruti.
Eiztari ona, maiean dagona.
Nai eztetala, naramate nai detan tokira.
Jan lodi, bizitzeko guri.
Batek balio ditu milla, eta millak batere ez.
Subearen umea, sube kumea.

(Aurrandetuko da)

refiriéndose á una revista bayonesa,[1] que la roca donde estuvo esta inscripción fué desgraciadamente picada y desmenuzada por un peón caminero español en 1886.

Madrid, 28 Abril 1893.

FIDEL FITA.

(Del *Boletín de la Real Academia de la Historia.)*

EUSKAL ESANGAIAK

(AURRANDEA)

Otsoa ardizai.
Ate bat istean, bestea idikitzen da.
Kulpa duenak, iñork segitu gabe eskapatzen du.
Itzak aizeak eramaten ditu.
Nai dubenak gertatu parragarri, bere burubaz itzegiñ.
Zer merezi, ura irichi.
Gusto dan tokian, aldaparik ezta.
Ugazama, deabru ama.
Gaizki egiña nekez aztutzen da.
Itza biotzaren giltza.
Sua dan tokitik kea ateratzen da.
Onaren berri naiduenak jakin, charra zerdan progatu.
Arronkak aundik, eta egintzak chikik.
On egiñak, iñon eztu lotsik.
Turmoiak aditzean, Santa Barbara.
Eguzkitan erretako ogirik, iñon eztago.
Ona izango litzake, atze aurre berriyak egiñ ezkero.
Zer ikusi, ura ikasi.

(1) «A propos de l'inscription latine d'Escot M. L'abbé V. Dubarat fait cette remarque dans ses *Études historiques et religieuses du diocése de Bayonne* (1.re année, 3.e livraison, juin 1892, p. 274): «On ignore généralement qu'un ouvrier espagnol fit sauter, en 1886, le rocher sur lequel était l'inscription romaine, pour le transformer en gravier.»

Eztira ogei urte bear ogei gauza ikusteko.
Arriya tira, eta eskuba gorde.
Danean bonbon, eta eztanean egon.
Alperrak beti, izaten dik asti.
Ardi antzua, beti bildots.
Astoari eziñ, arbaldari ekiñ.
Astoa saldu, eta astoa erosi.
Azken datorrenak, ar beza.
Ardiak izan kulpa, eta bildotsak paga.
Aurrak eta eroak, esaten dituzte egiak.
Atsoak Maiatzean, aulkia erre zuan.
Apirillean, euri betean.
Alper da Maria makillatu, ez da berdin zintzotu.
Askoren astoak, aldean otsoak.
Astoa illa danean, zaldalea buztanean.
Auntzaren umea, auntzumea.
Auntzak diña ardiak: ordotzak diña urrusak.
Aurrakin dana etzaten, lardatua da jaikitzen.
Asko egin mi, guchi egin bai.
Aurreak erakusten du, atzeak nola dantzatu.
Arbola eroriari, denak egur.
Aldizka, zapatariak zaldizka.
Astoaren aoari, eztagoka eztia ongi.
Ardiak beeka egonik, ez du jaten belarrik.
Arret edo zarret, gure echea gora dek.
Aditzalle onari, itzak urri.
Askoren miña, choroen atsegiña.
Aideak alboan, ortzak aoan.
Aukeraren mankera, azkenean okerra.
Aserratzean artzaiak, agertzen dira gaztaiak.
Ariak, jostorratza baño luzeago bear du.
Amoriozko ezkontza, dolorezko bizitza.
Andik edo emendik, ikusten dekana egiñ ik.

(Aurrandetuko da)

EUSKAL ESANGAIAK

(AURRANDEA)

Aoa dabillenean, tripak poz.
Apirilleko lorea, urrea baño obea.
Bakoitzak bere santuari, erregutzen dio.
Batek ez duena, besteak beardu.
Bakoitza beretzat Jaungoikoa guziontzat.
Batzuek azaro, besteak uzta oro.
Burnigille zikoitzak, zotzezko kanibetak.
Besterenak zai, eta zuretzat ez gai.
Batzuek fama, besteak izana.
Bein bai, berriz ez.
Begira tellatua badezu, auzoari arrika eztegiozu.
Besteren buztanarekin, euliak kendu nai.
Baigorriko Chanchalan, echean jan eta kanpoan lan.
Begia goseago, tripa baño.
Choriak lumatik, zer dan ezagun dik.
Choroen itz, belarriak ich.
Deabru zarrak eman, eta berak eraman.
Denborak eltzen ditu inchaurrak.
Damak ekoizkiro, dirudite ederto.
Danean eguzki, zapiak iseki.
Danean bonbon, eztanean egon.
Egin zazu on, naiz ez jakin non.
Eguzki eta euri, Marcho eguraldi.
Ez dek larrosarik, arantza gaberik.
Ez da atze aurrerik, berdiñ dituenik.

Ez dira astoentzat konfiteak.
Egunsentian gorri, arratsean euri.
Ez da iñor, zerbaiterako ez danik on.
Ez duenak, eziñ eman.
Ez da gaitzik, onik ez dakarrenik.
Egunak eguna, urbill du.
Eroak bat, eta ura zart.
Ero guziak, ez dira Zaragozan.
Esaten erraz da, egiten gaitz.
Eche utsean, okela guchi eltzean.
Echeko suak, ill bitza sukaldeko autsak.
Eche charrak, tellape charra.
Ez du gizona, diruak egiten.
Ezkon urtea, ero urtea.
Emalleari etzaio artzallea faltako.
Eztarri chikia, balitzake edale garbia.
Ez da eltze aiñ itsusirik, bere estalkia ez duenik.
Ez ur eta ez ardo.
Ezkondu baño len, pensa zer egiten den.
Emak laster, emango dek bi bider.
Esanlea, entzunle.
Ero zur, bizkarrean egur.
Ez ekintza eta ez onekintza.
Emakume ta udaré, isillik dagoana obi.
Ez benaz, eta ez burlaz, ez josta nagusiaz.
Egun bateko negarra, eta betiko farra.
Eginzak, zirt edo zart.
Ez danean, jan galanki.
Ezer izan ez, eta zerbait uste.
Gure zakurrak buztana luze, nor bera bezela besteak uste.

(Aurrandetuko da)

EUSKAL ESANGIAK

(AURRANDEA)

Gaitza, ordu onean atoz, bakarrik bazatoz
Giza prestuen eskasez, nere aita alkate.
Goiz jaikia, ez da egunsentia.
Gizona isill, arri billa dabill.
Guchi, eta nor bere.
Gizon pobrea, maiz noblea.
Gezurrak, buztana motz.
Gizon chikia, berritsu aundia.
Gaitz eman dek, artu ere badek,
Gizon orrek ez dik, gibelean arrik.
Gaitzetik, urri.
Gaua sartua, guzia naastua.
Gauza baña benta obea.
Gauza guchi, beti goso.
Gure poza putz.
Gezurra esan nuan Getarian, ni baña len zan atarian.
Gizon charrak arrazoi onik ez.
Goazen beste errira, an ere zakurrak dira.
Ispillurik onena, echekoandre oberena.
Itsuen errian, okerrak alkate.
Itsuak ez daki zer kolore berezi.
Ille eske joanik, etorri muskildurik.
Ibilli ta ibilli, azkenean erori.
Irabaztean guchi, pentsua urri.
Ipurdi batez eserleku bi, eziñ litezke estali.

Jaungoikoak egiñ, eta eurak elkarrekin.
Kanpoan uso, echean otso.
Kupela zarrak, usai charrak.
Katua kanpoan, arratoaik dantzan.
Kanpaia nai ez duenak aditu, ez bere soka astindu.
Kofradiakoa ez danak, ez beza kandelarik artu.
Kanpai charrak, soñu charra.
Katu maukaria, ez dek eiztaria.
Kukuak gaizki jo dio soñua.
Lan, ta jan.
Legea, oituratik dator.
Lotsarik ez, eta bearrik ere ez.
Lumatu baña len, egaatu nai zuen.
Lastozko buztana duenak, erretzeko bildur da.
Maiatzeko lorea, deus ez baña obea.
Mariñelaren emaztea, goizean senardun, arratsean alargun.
Maiatz euritsua, urte ogitsua.
Maita ezak belea, eta aterako dik begia.
Mezaren luzagarria aleluya.
Maña bear, ez indar.
Nolako bizitza, alako eriotza.
Nolako aita, alako semea.
Nerea neretzat, besterena biontzat.
Nekez bildu, aisa banatu.
Nolako jabea, alako tresnea.
Nagia bada astoa, emaiok astozai aroa.
Noronz eguzki, aronz burusi.
Nolako echekoandrea, alako mirabea.
Non da nere gogoa, an da nere zankoa.
Nolako eltzea, alako burruntzalia.
Obe da bat eskuan, ez bi auzuan.
On da ematea, artzea obea.

(Aurrandetuko da)

EUSKAL ESANGAIAK

(AURRANDEA)

Sasiak belarriak ditu.
Otsande ona badezu, lo gozoa egingo dezu.
Oyarzun, dakartzun monedan eranzun.
Ona da errotaria, arton lekuan emateko ogia.
Otsoak ez du bere aragirik jaten.
Oñezkorik nai ez, eta zaldizkorik izan ez.
Obe dek bein to, ez bi bider gero.
Oraingo isilla, laster izango dek iskanbilla.
Otsoa ardi zai.
Ogi erre-berria, eche galgarria.
On da, baña ¿nonda?
Ordu batean ezin dana, bitan egiten da.
Pazia zarrak pertzari, ¡ken adi ipur beltzori!
Paziaren ondoren, soka putzura.
Pakegille sartu nai badek, ongi burua gorde bear dek.
Sua dan tokitik, kea irtetzenda.
Santa Kataliñetan, chalupak erroseletan.
Tripak egitean gur gur, bartko aparia agur.
Urrutiko inchaurrak amalau, bertaratu ta lau.
Urrutiko kanpaiak soñu aundiak.
Ura bada geldi, artatik begira adi.
Usterik guchienean, gurutzea atal-aurrean.
Zer ikusi, ura ikasi.
Zerri goseak, ezkurra amets.

Zaietan zintzo, iriñetan ero.
Zulo bat ichi eta bestea ireki.
Zenbat eta geiago, orduan ta naiago.
Zerria ill eta kurrinka bizi.
Zakur zarra, ez da engañakorra.
Zozoak beleari, ipur beltz.
¿Zerda? zerzeta burruntzian erreta.
Zerria azi echean eta ill auzoan.
Zu zeran tokian, ez da koiperik faltako.
Zozo aseak gingak igin.
Ongi ebakia dik mingaña.
Usai onik ez dakark.
Denda badezu zaitu ezazu; bestela galduko dezu.
Aritzak azala ametzak bezela, zarrak eziñ gazteak bezela.
Chakurrai egindako ortzkada chakurraren illeaz sendatzen da.
Olajaun pobreak agorra, aitzaki ona.
Zulo bakoitzari petachua.
Gizona trabenan, andrea jokuan, berriz ere egongo dituk linayak zokoan, eta praka zarrak kakoan.
Eztakusan begiak negarrik ez.
Azak berea kirtena, eta aritzak bere arikoa ezpala.
Auntzak utzi balegio, akerrak utzi lekio.
Nai nukez eta banukez bazter guziak beteak daudez.
Guziak itsuak diran errian begi bakarra alkate.
Ollarra bere lurrean sendo.
Otsoak otsoari gaitzik ez eta lapurrak lapurrari laztan.
Kriselu ondoan linairik ez, atorra berririk ez.
Illargitako argia putzua.
Ardo gozoak lau begi, eta oñik ez.
Astoaren arrantza mingabea.
Ontzari ez begiratu lumara.
Zu beti ero, otz edana bero.
Zoroen eztia gozoa guztia.

EUSKAL ESANGAIAK

(AURRANDEA)

Maria gurea goruetan, bear eztan orduetan.

Errenientaria senarra, Jainkoak obea diñala.

Auzoko beyak errua luze.

Mirabe berriak galbayaz ura, zarrari sullaz ere lekurik eman ez gura.

Azari zarrari illea joan, baña ez antza.

Bei biren esnea pazia betea.

Goiz gorri, laster euri.

Arrats-gorri, goizean eguzki.

Apaizaren eltzea chikia baila betea.

Arzayak aserratu, gaztak merkatu.

Jan edanaren gozoa, kontu emanaren gaistoa.

Guztia nai duenak, guztia galdu.

Igazko chakurra, aurtengoaren urkatzalle.

Aldapa gora, aldapa bera.

Ondarrua eta Motriku, idiak idia arkitu.

Lekuan lekuan ardiak, beltzen artean zuriak.

Dollorra, beti prestuez gogorra.

Ara bertan ezerez, azak bai, koiperik ez.

Daukanak gauon, eztaukanari emon.

Soldadua, amaren seme galdua.

Ibiltari gauean, logure goizean.

Egia, askoren erregarria.

Etorkizuneko olaak burnirik ez.

Etorriko zatzu adiskidea, sobraren arraskiña.

Baneuka, bazenduke, zeuk bazendu obe zenduke.
Zeurekin badezu, nerekin jango dezu.
Bakoitza bere soroak bizi du.
Katuak daraman chardiñari el-zayok.
Emak emalleari, izak egilleari.
Bururik ezdubenak chapelik bear ez.
Eche guzietan marikolak egosten eta gure echean panderaka.
Ez diozu igerika irakutsiko urean den arraiñari.
Zarraren umea martzuka.
Mando merkea iretzat nekea.
Oiñen bete, zapata.
Begitatik urrun, biotzetik urrun.
Bakotchak bere bergaz bertzeak neurtzen ditu.
Beltz guziak ez dira beleak.
Yinkoa deitzen dugu bear ordutan, deabruba bertzetan.
Gure katuak buztana luze, bera bezala bertzeak uste.
Goizean goiz yeikitzen denak arratseko zerbeit egiten du.
Itsasoak adarrik ez.
Goiz gizon, berant ezkon.
Agiñan miñ duenak maiz mingaña nra.
Lasto su, laster su.
Arrats gorriak eder aldi.
Ardo gozoak lau begi, ta oñik ez.
Gizon chikiak maiz ots aundiak.

EUSKAL ESANGAIAK

(AURRANDEA)

Arzayak Amezketan ondo bizi dituk.

Echeko autsak bear du echeko sua estali.

Jaunen artean zeiñ da latz eta gogorrena? Chiki izatetik jauntzera eldu dena.

Asiera onak aunitz balio du.

Apirilla euritsu, urte ura ogitsu.

Beti ongi nai duena, maiz gaizki.

Danboliñ pagatuak, soñu onikan ez.

Denbora bakotchako gauza gozoa, arbi errea abendukoa.

Dela zarra edo dela gaztea, bizi bearko du Jaungoikoak nai duen artea.

Esku batekin bustitzen da bestea, eta biakin aurpegia.

Ez ikusi eta ez ikasi nornai dala, alako lagunatik Jainkoak guarda nazala.

Goiz jeikia goiz gose, berant jeikia, loz ase.

Ume, egin zazu lan, nai baduzu jan.

Marcho lore, alfer lore.

Apirill lore urre lore.

Maiatz lore, utsa baño obe.

Nai duena esaten duenak, nai ezduena adituko du.

Zurraren poltsak bi zulo.

Goazen beste errira an ere chakurrak dira.

San Simon ta Juda udara joan ta neguba elduda.

Mandazaia illtzean jakiten da mandoak norenak diran.

Jenioa mudatzen du aitzurrak eta palak.

Eche denetan laratzak beltzak.
Ikusten eztuan begiyak eztu negar egiten.
Eche uts gerra uts.
Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu.
Zer merezi ura etorri.
Jokua eztuk errenta.
Idiak miñ artu eta gurdiak negar egiñ.
Nolako neguba alako arropa.
Konseju onak besterentzat eta mokadu onakberetzat.
Iturrira maiz dabillen charroa autsi egiten da.
Aurra obea chocha baño laguntzat.
Asko jakin naidubenak guchi esan.
Buru gabearen oñak pagatzen dute.
Allegatuko zaio bere San Martin.
Atia urerako umea urerako.
Gazterik sartu bide onean ona izateko zartzen danean.
Ez itzegiñ ezpada nai utsegiñ.
Errege tontua asto korotua.
Chikien maitien, familiyan.
Otso askorentzat aragi guchi dago emen.
Arrazoya arma soilla.
Itzontzi utsontzi.
Nolako alkatia alako justiziya.
Zarra eziñ mugiarazo eta gaztea eziñ iruki geldi.
Ez kontatu dirubarekiñ, izan artean.
Beiya bario len chincherriya.
Non illundu, an ostatu.
Nolako bizitza alako eriotza.
Joku guzia duk tranpa.
Portaleari begiratu erriya zer izango dan.
Ezperantzetan bizi miseriyaz illtzeko.
Alper langille galeraingille.
Chori buru uts buru.
Auntzaren gaberdiko eztula da bera.
Arpegira begiratu zer izan litekean.
Kulpa dun lotsa dun.